



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatzak bi mila eta hogeita biko ekainaren seian, hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

URRESILLAKO HILERRIAN UDALAK ERAIKI DUEN BLOKE E-HEZURTEGIAK ESKAINTZEKO ERIZPIDEAK ONARTZEA.

Aurrekariak:

Orain urte batzuk Azpeitiko Udalak herriko hilerra handitu zuen eta C, L, H, J, I, K bloketan nitxo eta hezurtegi berriak sortu zituen, eta denboran zehar hainbat erabaki hartzen joan da horiek esleitzeko.

Orain urte gutxi Urrestillako hilerrian Udalak E-hezurtegiak blokea eraiki zuen, eta horiek esleitzeko jarraituko diren erizpideak finkatu behar dira.

Erizpide horiek finkatzerakoan kontuan izan behar dira garrantzizkoak diren honako erabakiak:

1.- Udalbatzak **1998ko maiatzaren 7an** egindako bilkuraren nitxo eta hezurtegi horiek emakidan (75 urte) edo alokairuan (12 urte) esleitzeko erizpideak onartu ziren.

2.- Alkatetzak **2014ko otsailaren 17an** emandako Ebazpenaren bidez garai hartako egoera kontuan izanik, erizpide horiek berrestu edota malgutu egin ziren, herritarra egindako proposamenak kontuan izanik.

Hezurtegien kasuan bi erabakiak erizpide bera jaso zuten: Hezurtokiak eskatzen diren heinean emakidan emango dira, 75 urterako.

Herritarrek ahalmena izango dute bat edo beste aukeratzeko.

Hezurtegiak okupatzerako eskatzaileak beharrezkoa izango du udal-zerga agintarauan jasotako tasak ordaintzea.

Honen bidez proposatu nahi da Urrestillako hilerrian eraiki den E-hezurtegiak blokerako ere erizpideak berdinak izatea.

Estrategia eta Hirigintza Batzordeak 2022ko ekainaren 6an egindako bilkuraren emandako aldeko irizpena kontuan izanik, Udalbatza Osoko kideek aho batez, eta beti ere legezko kopuruaren gehiengoarekin ONARTU DU:

Urrestillako **E-hezurtegiak blokerako erizpideak** herriko hilerrikoaren berdinak izatea.

Hezurtokiak eskatzen diren heinean emakidan emango dira, 75 urterako.

Herritarrek ahalmena izango dute bat edo beste aukeratzeko.

Hezurtegiak okupatzerako eskatzaileak beharrezkoa izango du udal-zerga agintarauan jasotako tasak ordaintzea.

Eta horrela jasoa gera dadin eta, alkate udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeita biko uztailaren batean.

O.E.
ALKATEA,





Azpeitiko Udala

Para que así conste, se hace saber que el siguiente texto es una traducción del original, redactado en euskera (Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi).

**OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, SECRETARIA DEL
AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA.**

CERTIFICO: Que el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día seis de junio de dos mil veintidós, adoptó el siguiente acuerdo:

**APROBAR LOS CRITERIOS PARA LA OFERTA DEL
BLOQUE E DE OSARIOS CONSTRUIDO POR EL AYUNTAMIENTO
EN EL CEMENTERIO DE URRESILLA**

Antecedentes:

Hace unos años el Ayuntamiento de Azpeitia amplió el cementerio de la localidad y creó nuevos nichos y osarios en los bloques C, L, H, J, I, K, y a lo largo del tiempo ha ido tomando diversas decisiones para adjudicarlos.

Hace pocos años en el cementerio de Urrestilla el Ayuntamiento construyó el bloque E de osarios y hay que fijar los criterios que se seguirán para su adjudicación.

A la hora de fijar estos criterios hay que tener en cuenta las siguientes decisiones relevantes:

1.- En sesión plenaria celebrada el día **7 de mayo de 1998** se aprobaron los criterios para la adjudicación de dichos nichos y osarios en concesión (75 años) o en alquiler (12 años).

2.- Teniendo en cuenta la situación existente en aquel momento, mediante Resolución de Alcaldía de **17 de febrero de 2014**, se ratificaron y/o flexibilizaron dichos criterios, teniendo en cuenta las propuestas realizadas por la ciudadanía.

En el caso de los osarios ambas decisiones recibieron el mismo criterio: se hará la concesión de los osarios a medida que se soliciten para 75 años .

Los ciudadanos tendrán potestad para elegir uno u otro.

La ocupación de los osarios requerirá que el solicitante abone las tasas recogidas en la normativa tributaria municipal.

Mediante la presente se propone que los criterios sean los mismos para el bloque E de osarios que se ha construido en el cementerio de Urrestilla.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Estrategia y Urbanismo, en sesión celebrada el día 6 de junio de 2022, el Pleno de la Corporación por unanimidad, y siempre por mayoría del número legal, ACUERDA:

Que los criterios del **bloque E de osarios** de Urrestilla sean los mismos que los del cementerio de la localidad.

Se realizará la concesión de los osarios a medida que se soliciten, por un período de 75 años.

Los ciudadanos tendrán potestad para elegir uno u otro.

La ocupación de los osarios requerirá que el solicitante abone las tasas recogidas en la normativa tributaria municipal.

Y para que así conste, con el visto bueno del la Alcaldesa Presidenta, expido la presente certificación en Azpeitia, a uno de julio de dos mil veintidós.

V.B.

LA ALCALDESA,

